

Ekimen hau, "Jantoki kolektiboak hornitzeko Debagoieneko plataforma" proiektuaren barruan garatu da.

2030

Bergara | Joan XXI plaza  
Arrasate | Araba hiribidea, 3  
[www.ereindajan.eus](http://www.ereindajan.eus)



# DEBAGOIENeko ELIKA-BIRA

Elikadura ereduan eragin,  
sentsibilizazioa lana egin eta  
kontsumo kolektiboan  
urratsak emateko jardunaldi  
ibiltaria.



## UDABERRI-UDAKO SAIOAK

### FAMILIENTZAKO ELIKADURA ESKOLA

Elgetako kafe antzokian  
Ekainak 2, 18:00etan

### ESKUALDEKO ETXALDEETARA BISITAK

Egun eta ordu berean  
5 txoko ezberdinetan  
Ekainak 27, 10:00

Saio guztiak dohakoak eta irekiak dira.  
Udazken-neguan gehiago. //+//

## FAMILIENTZAKO ELIKADURA ESKOLA

### "ESKOLA JANTOKI EREDU BERRI BATERANTZ"

Nork erabakitzen du zer jaten duten gure seme-alabek eskola jantokietan? Nork ekoizten ditu elikagai horiek? Nola jan dezakegu hobeto eta osasuntsuago? Nola hobetu dezakegu jantokietako elikadura? Zer egin dezakegu gure ikastetxean? Galdera horien inguruan informatu eta galdetzeko Bidezko elikadura erakundeko Eneko Viñuela gonbidatu dugu. Honez gain, eskualdeko jantokien proiektuaren berri emango da.

**Noiz?** Ekainak 2an, asteazkena, 18:00-19:30 Elgetako Espaloia Kafe antzokian.

**Norentzat?** Hitzaldia Debagoieneko eskoletako familientzat zuzenduta dago, baina irekia da interesa duen ororentzat.

Jantokiko protagonistentzat txikigunea egongo da, "Katuska" dinamizatzailearekin (sukaldaritza tailerrak, jolas libreak...). Covid-neurriak direla eta, Elgetako haurrei zuzendutako ekintza izango da. 3-12 urte bitarteko haurrentzat.

\*La actividad será en euskera, si necesitas interpretación, avisar con antelación.

**Izena emateko:** Txikigunerako -- [elgetakogurasoelkartea@gmail.com](mailto:elgetakogurasoelkartea@gmail.com) (zenbat haur eta zein adin duten zehaztu)

**Antolatzaileak:** Ereindajan eta Elgetako guraso elkarteak

## BISITAK

### ESKUALDEKO ETXALDEETARA

| BISITA GIDATUA  
| DASTAKETA  
| FRUITU BILKETA

#### Helburua:

-Eskualdeko kontsumitzaile eta ekoizleen arteko harremana indartzea.  
- Ekoizle ezberdinen ogibidea, produktuak eta etxaldea ezagutzea.  
-Ekoizpen ekologikoa, salmenta zuzena, ekoizpen proiektu txikiak, eskualdeko txokoak... bertara hurbildu eta ikastea.

**Noiz:** Ekainak 27, domeka, 10:00-13:00

#### Lekuak:

-Atxineta baserria (Aramaio). Frutagintza eta abeltzaintza (ahabiak, oreinak...). Castellano  
-Errastiko ogia (Arrasate). Ogi Obradorea. Euskaraz  
-Mendibitzu baserria (Aretxabaleta). Abeltzaintza (ardiak, zaldiak, behiak...). Euskaraz.  
-Ziarreta baserria (Bergara). Ortugintza. Euskaraz.  
-Iturrieta baserria (Aramaio) Frutagintza, sagardoa. Euskaraz

**Izena emateko:**  
[labur.eus/bisitakEDJ](http://labur.eus/bisitakEDJ)

\*Izen ematea ezeztatze edo zalantzak argitzea, idatzi helbide honetara: [jangelak@ereindajan.eus](mailto:jangelak@ereindajan.eus). Covid-neurriak bermatuko dira, eta bisita guztiak aire librean egiten ahaleginduko gara.



**EKAINAK 27**

**5 BASERRI AUKERAN**

**DEBAGOIENeko ELIKA-BIRA**

**IZENA**

**EMAN**

**BISITAN!**

[labur.eus/bisitakEDJ](http://labur.eus/bisitakEDJ)

[jangelak@ereindajan.eus](mailto:jangelak@ereindajan.eus)



**ATXINETA (ARAMAIO)**

**"Bisitan abereen guneak eta ahabi-saila ikusiko ditugu: ahuntzak, behiak eta gu non gauden pixka bat azalduz hasiko gara, ostean, ahabi batzuk jasoko ditugu. Azkenik, baserrian, oreinei bazkaltzen emango diegu, eta zukuak eta marmeladak dastatuko ditugu. Ekainaren 27an zatoz gurera!"**



**EKAINAK 27**

**5 BASERRI AUKERAN**

# DEBAGOIENEKO ELIKA-BIRA

**IZENA  
EMAN  
BISITAN!**

[labur.eus/bisitakEDJ](http://labur.eus/bisitakEDJ)

[jangelak@ereindajan.eus](mailto:jangelak@ereindajan.eus)



**ERRASTIKO (ARRASATE)**

**"Errastiko Ogiko Xabi eta Naiara gara. Animatu nahi zaituztegu ekainaren 27an gure obradorean ogia nola egiten dugun ikustera."**



**EKAINAK 27**

**5 BASERRI AUKERAN**

# DEBAGOIENENKO ELIKA-BIRA

**IZENA  
EMAN  
BISITAN!**

**labur.eus/bisitakEDJ  
jangelak@ereindajan.eus**



## ITURRIETA (ARAMAIO)

*"Ekainaren 27an sagarrondoak eta baserriaren ingurua ikusiko ditugu, bilketa eta ekoizpen prozesua ezagutuz. Nola lan egiten den, sagarraren propietateak, zuhaitz motak etabar. Dastatzeko aukera ere egongo da. Animatu zaituz!"*



**EKAINAK 27**

**5 BASERRI AUKERAN**

# DEBAGOIENEKO ELIKA-BIRA

**IZENA  
EMAN  
BISITAN!**

**labur.eus/bisitakEDJ  
jangelak@ereindajan.eus**



**MENDIBITZU (ARETXABALETA)**  
**"Aupa lagun! Datorren ekainaren 27an Mendibitzuko baserria eta familia ezagutzeko aukera polita edukiko duzu. Gure ekoizpena nolakoa den erakutsiko dizuegu eta gure produktu ekologikoak ere dastatuko dituzue. Anima zaitetz eta etorri bisitan!"**

**EREINDAJAN**

**2030**



**EKAINAK 27**

**5 BASERRI AUKERAN**

**DEBAGOIENENKO ELIKA-BIRA**

**IZENA**

[labur.eus/bisitakEDJ](http://labur.eus/bisitakEDJ)

**EMAN**

[jangelak@ereindajan.eus](mailto:jangelak@ereindajan.eus)

**BISITAN!**



**ZIARRETA (BERGARA)**

**"Ekainak 27an Ziarreta baserrian ikusiko gara. Sasoiko produktuak landatzeko eta dastatzeko aukera egongo da!"**